

# noaua



Argazkia: Ibai Arrieta

## Esperantzara konfinatuak





# USURBILGO HAUR ESKOLA



2018, 2019 eta 2020 urteetan jalotako haurrei zuzendua

• **ATE IREKIEN EGUNA:**

Gaur egungo egoera dela eta, aurrerago zehaztuko da

• **MATRIKULA EPEA:** Apirilaren 2tik 30era  
(apirilaren 6tik 19ra itxita)

• **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30

• **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila

• **MATRIKULAZIORAKO HITZORDUA:**

943 374061 telefono zenbakira deitu 8:30etik 12:00etara.

Helbidea: Kalezar, 15 20170 USURBIL

Informazio gehiago: 943 374061 edo haureskola@udarregi.eus

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu



*Lore eta zentru aukera  
zabala!*



**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

## Albistea iruditan

# Koronamaloa

Zorion agurrak edo oharrak bidaltzeaz gain, etxean nola zaudeten azaldu nahi diguzue? Egunez egunekoa nola bizi duzuen kontatu nahi? Denbora pasarako ideia originalik bururatu eta herritarrekin partekatu nahi zenukete? Zuen bizipenak biltzen dituzten idatziak edota argazkiak NOAUA! bidez hedatzeko aukera duzue.

Ondoko argazkia jaso dugu, adibidez. Bat baino gehiago dira etxeko balkoiak bizi dugun egoerarako giotzen hasiak direnak. "Etxeko balkoian Koronamaloa jarri dugu, txoriak aldentzeko txorimaloak lez, kalean dabilen bitxua guretik uxatzeko... Ea nork egiten duen beldurgarriena!". Bideoetatik partekatu ditzakezue zuen hitz, argazki zein irudiak:

- [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)
- Facebook: Noaua Aldizkaria
- Twitter: @noaua



"Etxeko balkoian Koronamaloa jarri dugu, txoriak aldentzeko txorimaloak lez, kalean dabilen bitxua guretik uxatzeko... Ea nork egiten duen beldurgarriena!".

## Laburrean

### eLiburutegia, eskura

Sutegi udal liburutegia itxita egon arren, eLiburutegia martxan da. Zalantzarik izanez gero, udal liburutegikoekin harremanetan jar zaitezke. Posta elektronikoa: [biblioteka@usurbil.eus](mailto:biblioteka@usurbil.eus)

### Indarkeria kasuetan

Isolamenduak indarkeria sexista areagotu dezakeela eta, protokoloa indartu du Udalak. Telefono zerrenda bat luzatu du: SOS Deiak: 112. / Udaltzaingoa: 943 36 11 12. Gizarte Zerbitzuak (goizez): 943 37 71 10.

### Berrogeialdian daudenei

Atez ateko sistema egokitu du Udalak kutsatuta edo berrogeialdian dauden etxeetan. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Udalari horren berri emateak, 669 87 40 22 telefonora deituta.

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) ||| [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Disinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.  
**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Banaketa:** Inaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Maddi Aburruza

## Ustekabeko aukera eta berri aldrebesak

I nauterietako ostegun gizona zen, eta han nengoen ni Donostiko Amara parkean, zaintzen ditudan bi haurrekin eta euren lagun eta gurasoekin, mezua jaso nuenean.

Imanol zela esan zidan, NOAUA!ko koordinatzailea eta proposamen batengatik deitzen zidala. Aldizkarian lan egiteko eskaintza egin zidan, baina hasiera batean ezezkoa esan nion. Ez dakit, beldurratik izan zen, momentuko sorpresarengatik, momentu egokia ez zela pentsatu nuelako... ez dakit. Baina, bati eta besteari komentatu eta, orduan, nik hartu nuen Imanoli deitzeko erabakia. Lasaiago nengoela deitu nion, nire egoera zein zen azaldu nion; goizetan unibertsitatera joaten nintzela eta arratsaldean umeak zaintzen nituela. Beraz, ea nik egin beharrekoa izango litzatekeen galde-tu eta erabakia hartu nuen, baiezkoa izan zen.

Egia esan apur bat larriturik jarraitzen nuen. Izan ere,

buruari bueltak ematen jardun nintzen ea denbora nondik aterako nuen pentsatzen: klaseak, unibertsitateko lanak, GRALA (Gradu Amaierako Lana), arratsaldetan umeak... Hala ere, nire buruarengan sinistu eta hau guztia egiteko gai izango nintzela pentsatu nuen, gainera denboraldi baterako zela pentsatzeak ere lagundu zidan. Idaztea gustatzen zait, eta bestalde, umeak zaintzearekin irabazten nuen diruaz gain, NOAUA!koa ere ondo etorriko zitzaidala pentsatzen nuen. Beraz, hemen nago jada nire bigarren iritzi artikulua idazten.

Orain pentsatzen jarrita, eskerrak baiezkoa esan nuela! Munduan biraka dabilen gaitz hau etorri baita, eta orain, ez nabil umeak zaintzen. Horrek esan nahi du, eurak zaintzen irabazten dudana diru hori ez dudala. Eta bai, diruak arduratzen nau. Nire aburuz, denoi arduratzen digun moduan. Badaramagu denbora bat etxean sartuta, Idoia Torregarai bere Twitter kontuan jartzen zuen

moduan: “Txori bat pausatu da leiho-ertzean. Begira geratu zait. Orain ni naiz kaiolan dagoena”. Bai, gu gara orain kaioletan sartuta gaudenak, eta zein zaila ari zaigun egiten etxean geratu behar izate hau. Eta, ez dakit oso kontziente garen, baina honek luzerako izango delakoaren itxura du, zoritxarrez.

Unibertsitatean, hau dena pasako zela atzematen genuenean, irakasleek esaten ziguten lasai egoteko, denbora gehiago izango genuela lanak aurreratzeko. Baina, orain goizetan klase birtualak ditugu, beraz, hor egon behar dugu, lan gehiago bidaltzen dizkigute eta lan horiek egin behar ditugu. Orduan, non dago lan horiek egiteko denbora gehiago? Lan gehiago bidaltzen baduzue? Nahiz eta etxeetan sartuta egon, bizitza bat badugula iruditzen zait, eta ezin dugula eguneko ordu guztietan unibertsitatearen menpe egon; bertako klaseak entzun eta horietarako lanak burutzen. Baina, ez dago besterik; denbora

ahal den bezala gestionatu eta lanak egiteaz gain denbora “libre” piska bat lortu zuretzako.

Gogoratzen naiz, haurra nintzenean beti helduek egiten zituzten gauzak egin nahi izaten genituela; sukaldean ibili, umeak zaindu, supermerkatuko edo ileapaindegiko langilea izan... Eta orain gauden egoeran egonda, ez al zenukete nahiko lehen zineten haur horiek izan? Egia da umeak ere aspertzen direla gu bezalaxe etxean, baina beraien inkontzientean bizitzea ez legoke gaizki momentu batzuetan. Eurak zerbait gaizki doala konturatuko dira, noski, baina ez etxeetan, lanera joan gabe geratzeak benetan duen larritasunaz.

Beraz, nire gomendioa, momentu batzuetan bada ere, igarotzen ari garen egoera zail honetaz ahaztea da, eta barruan dugun ume hori ateratzea, eguneroko momentu txikiak ere disfrutatzeak gonbita egitea, denoi animoak bidaliz.

Aritz Gorriti

Maddi Aburruza

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 03. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 30.



# Usurbil, 'OinHerri' sarean

Usurbil "OinHerri, Herri Hezitzailean" sartzeko konpromisoa hartu zuen udalbatzak otsailaren 27ko osoko bilkuran, EHBilduren eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu egin zen.

Hiru ardatzetan oinarritzen da egitasmoa; udalean, hezkuntzan eta herrigintzan. Xedeok bete nahi dira. "Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren



Egitasmoak hiru ardatz ditu: udala, hezkuntza arloa eta herrigintza.

## PROPOSAMENA

**San Juan bezperako suekin "kutsadura sor ez dadin" neurriak hartzeko da udal gobernu taldea**

bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asega-

riak jostea".

**Kanpoko eragileen beharraz** EAJ-k "kanpoko eragile" batek halako lan bat egiteko beharrik ez zuela adierazi zuen. "Ez dator ezer ordezkatzera", erantzun zioten udal gobernu taldeak. "Dauden eragileen arteko sinergiak bilatzea da helburua".

Eremu honetan diharduten herri eragileen artean interresgarriak izan daitezkeen proiektu bateratuak sortzea, beste herrietako esperientziak ezagutzea eta ekarri ahal izatea. Eraikuntza nazionalerako egitasmoa izan nahi duela azpimarratu zuen EHBildu koalizioak.

## Ika-mika

# Azokak bai!

Koronabirusaren krisi larriaren aurrean, neurri zorrotzak hartu dituzte hainbat administrazioak, esparru ugarritan. Eta azoketara ere iritsi dira, udal dezentek aurreko astean beren herrietako azokak bertan behera utzi baitituzte.

Beste udal batzuek, ordea, segurtasun-neurri zorrotzak ezarrita, azokak bestela egiteko aukera eman dute: Arrasate, Azpeitia, Oñati, Ordizia... Krisi

hau lezio ugari ematen ari zaigu: osasun- eta zaintza-sistema publiko indartsuen beharra dugula ez ezik, globalizazioak ekarritako merkataritzak eta ekoizpena kilometroetara eramateak ondorio lazgarriak dituela ere bai, larrialdi egoera honen kasuan bezala. Eta orain ere bizitzeko elikagaiak behar ditugunez, ondoko baserriarrek eskaintzen dituztenak herritarren eskuetara iristea aldarrikatzen dugu, haien beharra izango baitugu orain eta

etorkizunean, eta aste batzuetako geldialdia, baserriar askori ekoizpena galtzea ekarriko baitio.

Horregatik, lerro hauetatik Gipuzkoako Foru Aldundiari, Osasun Sailari eta udalei eskatzen diegu, behar diren neurriak hartuta, aukera eman diezagutela herritarroei azoken bidez, zuzenean gure baserriarrei bertako fruitu, barazki eta bestelako jakiak erosteko, orain da garaia, kanpaina ugarritan esandakoari eusteko:

bertatik bertara, garaiko, bertako eta elikagai ekologikoen alde! Trantsizio ekologikoaren bidean eta Klima Aldaketaren larrialdia murrizteko, ekoizte- eta merkaturatze-zirkuitu laburrak behar ditugu, horien artean azokak, ahalik eta seguruena, osasunari dagokionez zein ingurumenari dagokionez.

**NATURKON, Gipuzkoako natur eta ekologista taldeen koordinakundea.**

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus



**ANORGA TXIKI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# Elikadura bermatzeko diru-laguntza berezien oinarriak argitaratu ditu Usurbilgo Udalak

**H**auexek izango dira onuradunak: euren elikadura, lehendik, elikagaien bankutik bermatua zutenak, eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzeko ezartzen diren gehienezko diru-sarreraren baldintza betetzen dutenak, 2020 urteko diru-sarrera aurreikuspenen arabera.

Oinarritzko elikadura bermatzeko dirulaguntza bereziak sortzea erabaki zuen lehengo astean Prebentzio Mahaia, eta astean argitaratu ditu Udalak horiek eskatu ahal izateko oinarriak. “Diru-laguntza horren helburua da konfinamendua- ren ondorioz elikadura bermatu ezin duten hainbat kolektibo zaurgarriri laguntzea alarma egoerak irauten duen bitartean, hain zuzen, elikadura bermatzeko baliabideak emanez. Behin baino gehiagotan eskatu ahal izango da, alarma amaitu arte, behar bezala zurituz gero”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

Batetik, Oiartzungo elikagaien bankua itxi egin dute, eta elikadura horren bidez bermatua zuten herritarrak behar hori ezin ase gelditu dira.

Bestetik, konfinamendua-



Oinarritzko elikadura bermatzeko diru-laguntza bereziak sortzea erabaki zuen lehengo astean Prebentzio Mahaia.

## HELBURUA

**“Konfinamenduaren ondorioz, elikadura bermatu ezin duten kolektiboek laguntza da udal ekimen honen helburua”**

ren ondorioz, lanpostua galdu duten herritarrak daude, edo pentsiodunak, pentsio duinik ezean, oinarritzko elikadura bermatzeko zailtasunak dituztenak.

“Langabetuen eta pentsiodunen kasuan, Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzeko ezartzen diren gehienezko diru-sarreraren baldintzak hartuko dira erreferentziatzat”. Hau da, 2020 urteko diru-sarrera aurreikuspenak baldintza horien azpitik dauden herritarrek Udalak ateratako diru-laguntza berri hau jasotzeko eskubidea izango dute.

### Hiru diru-laguntza mota:

■ Kide bakarrek familia unitateak:

urtean, gehienez, 13.427 euroko diru-sarrerak.

Jasoko duten laguntza: 100 euro hamabost eguneko.

■ Bi kideko familia unitateak: urtean, gehienez, 17.241 euroko diru-sarrerak.

Jasoko duten laguntza: 150 euro hamabost eguneko.

■ Hiru kide edo gehiagoko familia unitateak: urtean, gehienez, 19.072 euroko diru-sarrerak.

Jasoko duten laguntza: 200 euro hamabost eguneko.

## Alarma egoerak irauten duen bitartean eskatu ahal izango da

Alarma egoerak irauten duen bitartean eskatu ahal izango da laguntza, eta, hamabost egunetarako laguntzak direnez, behin baino gehiagotan eskatu ahal izango da (alarma egoera bukatu arte). Jasotako eskaerak hamabostaldika sailkatuko dira, eta atzeraeraginekoak izango dira: eskatzen den hamabostaldia- ri dagokion laguntza jasoko dute. Hau da, norbaitek apiri-

laren 4an eskatzen badu, apirilaren 1etik 15era bitartean dagokion laguntza jasoko du.

### Laguntza, diru-sarreraren aurreikuspenaren arabera

Diru-laguntzak, ohiko egoeratan, aurreko urteko diru-sarreraren arabera izan ohi dira. Elikadura bermatzeko laguntzen kasuan, 2020ko diru-sarreraren aurreikuspenen arabera banatuko dira. Eska-

tu ahal izateko, nominak edo pentsioen edo langabeziaren prestazioa ziurtatzen duten agiriak eskatuko dira. Printzipioz, eskatzen duen orori emango zaio dirulaguntza, eta aipatu dokumentuak aurrerago aurkezteko eskatuko zaie, alarma egoera bukatzen denean. Momentu horretan baloratuko dute gizarte zerbitzuek laguntza jaso dutenei bazegokien edo ez: ezezko ka-

suan, jasotako laguntza buel- tatu beharko dute.

### Zuritzea

Diru-laguntza hori bigarren aldiz eskatzen dutenek, lehenengo laguntza elikaduran gastatu dutela ziurtatu beharko dute. Hau da, emandako diru-laguntzarekin ordaindutako tiketak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak, bigarren laguntza eskatu eta jaso ahal izateko.

## Arrisku egoerak eta isolamendua kudeatzeko protokolo eta laguntza zerbitzuak

Egunerokoan gizartearen bizi ditugun denetariko arazo, gatazka eta indarkeriak etxe barruetara eramatea eragin du indarrean den itxialdiak. Edota lehendik etxe barruan bizi zirenak okertzea. Egoera hauei itxialdia bera kudeatzeko norberak izan ditzakeen zailtasunak batu behar. Covid19-ari aurre egitearekin batera, uneotan sor daitezkeen errealitate anitzak kudeatzeko zenbait protokolo indartu eta laguntza zerbitzu zabaldu dira.



Osasun fisikoa zaintzeaz gain, burukoa ere zaintzen laguntzeko zerbitzu bat jarri du martxan Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak.

### Indarkeria matxistari aurre egiteko udal protokoloa

Konfinamendua hasi berritan, Soraluzen emakume bat erahil zuten. Biharamunean, lapikoak kolpatuz, mobilizazio burrunbatsu batekin salatu zuten herritarrek urte honetako Euskal Herriko hirugarren erahilketa matxista. Indarrean den konfinamendu egoerarekin kolektibo honen egoera larriagotu daiteke. Egoera honen aurrean, indarkeria sexistaren aurkako protokoloa indartu du Usurbilgo Udalak.

Ohiko etxebizitza uzteko beharra dutenentzako Udalak hiru etxebizitza jar ditzake. “Bi bizitzera sartzeko moduan daude, eta hirugarrena prest uzteko lanetan ari da udal-brigada”. Erasotuak izan daitezkeen emakumeek telefono zenbakiok dituzte eskura:

■ SOS Deiak: 112.

### ADINEKOEN ZAINTZA

**Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako 270 helduei banan-bana deitzen hastekoak ziren udal-langileak**

■ Udaltzaingoa: 943 361 112.

■ Udal Berdintasun Saila eta Gizarte Zerbitzuak (goizez): 943 377 110.

■ Satevi, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua: 900 840 111.

### Bakardadeari aurre egiteko

Adinekoen kolektiboak ere Udalaren arreta gunea izaten segitiko du konfinamendu egoera honetan. Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako 270 helduei banan-bana deitzen hastekoak ziren udal-langileak. “Zer moduz

dauden, maiztasun jakin batekin telefonoz deitzea nahi luketen, elikadura bermatua duten eta Herritarren Babes Sarearen berri ba ote duten jakiteko”.

### Arreta psikologikoa

Osasun fisikoa zaintzeaz gain, burukoa ere zaintzen laguntzeko zerbitzu bat ere martxan jarri du Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak. “Bizitzen ari garen berrogeialdi-egoera honek eragina izan dezake pertsona askoren gogo-aldartean, bai isolamenduarengatik bai egunero Koronabirusaren inguruan jasotzen dugun informazio mailagatik”. Pertsona hauei guztiei psikologikoki laguntzeko helburuz zabaldu da telefono bidezko arreta psikologikoa. Zerbitzua elkarteko kide diren bolondres profesionalak eskainiko dute. Zenbaki honetan: 692 566 160.

### Ikastetxeak epe

#### mugagabeen itxita

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak egunotan ohartarazi duenez, “gertaeren bilakaera eta agintari eskudunak aplikatzen ari diren neurriak direla eta, eskolen aldi baterako etetea beste abisu bat eman arte luzatuko da”.

### Aldaketak berriz, garraio zerbitzuetan

Covid-19ak eragindako egoera dela eta, martxoaren 16an tren eta bus zerbitzuak murrizten hasi zirela berriz eman genizuen aurreko aldizkarian. Zenbait geltoki eta garraio zerbitzuetan izandako bidaiari pilaketek ordea, biharamunerako egoera guztiz aldarazi zuten. Egun hartan %50era gutxitutako tren zerbitzuak berriz ere ohiko ordutegira itzuli ziren. Lurraldebusek, %40-%60 arteko zerbitzuen murrizketei eusten die.

Informazio gehiagorako: [lurraldebus.eus](http://lurraldebus.eus)

### Michelin itxita

Usurbilgo eta Gasteizko plantak ixtea erabaki zuten martxoaren 16an. Gutxienez 8 egunetarako, prebentzio-neurri gisa, langileen eta haien familien osasuna bermatu eta koronabirusaren hedapena geldiarazten laguntzeko.

## Asteburu honetan ere, ekitaldi ugari bertan behera

Konfinamendu egoerak iraun artean gutxienez, bertan behera geratuko dira iragarriak zeuden deialdi guztiak:

### Azken ostiraleko elkarretaratzea

■ Martxoak 27: 20:00 Euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa

plazan.

Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditu-tugu.

### Antzerkiaren Nazioarteko Eguna

■ 20:00 “Birritan bortxatua” antzerkia Sutegin.

■ 22:30 Afalosteko kontzertua: Ekiza.

### Kantu-jira

■ Martxoak 28: 12:30-14:00.

### “Lur eta Amets” filma

■ Martxoak 29: Lur eta Amets filmaren proiektzioa. 17:00etan Sutegiko auditorioan.

### VIII. Dantza Eguna

■ Apirilak 4-5: 8. Dantza Egu-

na eta 2. Dantzari Txiki Eguna.

### Hauteskundeak

■ Apirilak 5: Eusko Legebiltzarraren berritzeko hauteskundeak atzeratuak.

### Itzulia

■ Apirilak 10: Usurbil zeharkatzeko zen Itzulia.





Agurtzane Solaberrieta Mesa

## Txarrenari onena ateratzen ari gara

**K**oronabirusaren hedapena eragozteko, berriki jakin dugu beste hamabost egunez luzatuko dela gaur zortzi ezarritako larrialdi egoera. Latza da gertatzen ari dena, krudela ere bai kasu askotan.

Horregatik, nire lehen esker hitzak eta nire miwesmena azaldu nahi dizkiet osasun arloan, gau eta egun, dena ematen ari diren mediku, erizain, zeladore, garbitzaile eta, oro har, langile guztiei.

Doakie miwesmen bera isolatuta dituzten gure aitona-amonon zaintzaz arduratzen ari direnei, baita euren senideei ere, egoera zail hauetan, haien alboan egotarik ez dutelako.

Herriko merkatariei, herritarrek erosketak modu seguruan egin ditzaten egiten ari diren esfortzuarengatik.

Isolamendu egoera honetan euren erasotzailearekin bizitzera behartuta dauden emakumeei: udalak baliabide propioak bideratu ditu, etxetik ateratzeko beharra dutezentzat hainbat etxe egokitu ditugu. Deitu Udalera.

Udal langileei, eta bereziki, Gizarte Zerbitzuen alorreko langileei, garbitzaileei, udaltzainei, brigadari, hondakin biltzaileei eta abar luze bat.

Nola ez, nire miwesmena Herritarren Babes Sarean parte hartzen ari zaretenei. Gure herriko aitona-amonak edo gaixorik edo isolamenduan dauden herrikideak babesteko eta laguntzeko erakutsitako jarrera eredugarriarengatik. Une honetan, 130 boluntario daude sarean: ez da gutxi.



“Dei egin nahi diet adinekoei ez ateratzera: horretarako antolatu da herritarren sare zabala, zuen beharrak asetu eta erosketetan laguntzeko”.

### ALKATEA

**“Usurbilen, zorionez, oraindik oso murrizta da koronabirusak izan duen eragina. Hala ere, ezin dugu erlaxatu. Osasun agintariek diote okerrena etortzeke dagoela, eta, beraz, etxean geratzeko gomendio guztiak zorrotz betetzea dagokigu”**

Gogoan ditut ere lanpostua galdu duten herritarrak edo bihar lanera joatera behartuta daudenak. Ulertezina eta sinestezina egiten zait nola ez den erabakirik hartu oraindik norabide horretan, birusaren hedapena eragozteko neurrikeraginkorra izanik. Entzun ditzagun beste herrialdeetatik datozen aholkuak, eta baztertu dezagun kapitala krisi honen erdigunetik!

Oro har, herritar guztiei, miwesmena adierazi nahi dizuet,

etxean geratzeko aginduaren aurrean erakusten ari zareten jarrerarengatik: izan adineko, gazte edo haur. Gainera, irudimena landuz, txalogarria da, egunero, gure balkoietatik, edota sare sozialetatik abiatu dituzuen ekimenak elkar animatzeko, zaintzeko eta elkar maitatzeko. Bejondeizuela!

Usurbilen, zorionez, oraindik oso murrizta da koronabirusak izan duen eragina. Hala ere, ezin dugu erlaxatu. Osasun agintariek diote okerrena etortzeke dagoela, eta, beraz, etxean geratzeko gomendio guztiak zorrotz betetzea dagokigu. Zentzuz egin erosketak gure herriko saltokietan, ilararik sor ez dadin: ez atera kalera behar-beharrezkoa ez bada. Eta batez ere, dei egin nahi diet adinekoei ez ateratzera: horretarako antolatu da herritarren sare zabala, zuen beharrak asetu eta erosketetan laguntzeko. 130 boluntario daude zuei laguntzeko: balia ezazue aukera hau.

Gainerakoan, udalean kolek-

tibo zaugarrienengan jarri dugu begirada, guztion oinarritzko behar sozialak bermatzeko. Norabide horretan, hainbat neurri hartu ditugu:

1) Dirulaguntza lerro berezi bat jarri dugu martxan, herritarren oinarritzko elikadura bermatzeko.

2) Isolamendu egoeran adinekoei bizi duten bakardadea zertxobait arintzeko asmoz, deiak egingo dizkiegu bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako herritarrei, zer moduz dauden galdetu, euren beharrak jaso, eta solasalditxo atsegin bat izateko.

3) Indarkeria sexista pairatzen ari diren emakumeentzat eta euren etxetik irteteko beharra dutezentzat bi etxe egokitu ditugu.

4) Udal tasen eta zergen ordainketa epea luzatu dugu eta, halaber, herritarrei ez zaizkie hainbat zerbitzu kobratuko, kiroldegia edota haur eskola, kasu. Ordainketa hauetan guztietan malgutasunez jokatu du udalak.

5) Hondakin biltzea berezia jarri dugu martxan, eta gaixorik edota berrogeialdian dauden familiei modu berezian bilduko zaizkie hondakinak.

Txarrenari onena ateratzen ari gara. Ziur nago egoera hau guztiontzat ikasbide bat izango dela: erantzukidetasuna, elkartasuna, elkarzaintza... Nagusitu daitezten gisako balioak oren gainetik. Balio dezala honek guztiak gure komunitateari, gure herriari, Euskal Herriari, munduari, beturreko morez begiratu eta beste mundu bat eraikitzeko.

Animo, zaindu eta besarkadak!



# Kabiene: “Telelana ez da saldu nahi diguten bezain ederra”

Koronabirusaren krisia piztu zenetik hona, inoiz baino gehiago hitz egiten da telelanaz. Balizko pagotxaren aurrean, zer pentsatua eman du Kabieneko kideek zabaldu duten hausnarketak. “Ez da saldu nahi diguten bezain ederra”, hala diote Facebook bidez partekatu duten oharrean. Horrexegatik batu ziren 2016an. Usurbilgo ekintzaile eta profesional talde hau Elhuyarren egoitzaren gune batean ari da lanean.

Telelana bolo-bolo dabil egunotan, “eta badirudi etxetik lan egitea zoragarria dela, arazo guztien konponbidea”. Kabieneko kideek ordea bestelako irudipena dute: “gutako asko urte luzez aritu gara etxetik lanean, eta jakin badakigu



“Telelana aukera bat izan daiteke. Agian ezinbestekoa egungo larrialdi egoeran, baina badu bere alde iluna ere”. Argazkia: Kabiene.

## KABIENEKOAK

**“Telelana ez da saldu nahi diguten bezain ederra; bakardadea, kontziliazioa, bizitza pertsonala eta profesionala banatu ezina... Horrexegatik sortu genuen Kabiene”**

kontua ez dela saldu nahi diguten bezain ederra; bakardadea, kontziliazioa, bizitza pertsonala eta profesionala banatu ezina... Horrexegatik sortu genuen Kabiene. Beraz, animo egun hauetan etxetik lanean ari zareten guztioi, etorriko dira garai hobekak!”

## Errigorako produktuen banaketa atzeratu egingo da

Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktuak –jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatutak– eskatuak dituzuenok, apirilean oliba-olioa jasotzekoak zintzen. Eta kontserbak, arroza edo pasta maia-tzean.

Errigoraren kanpainako jakien banaketa-egunak noiz izango diren aurrerago zehaztuko dizuegu.

Informazio gehiago: [errigora.eus](http://errigora.eus)



Jakien banaketa egunak aurrerago zehaztuko dizkizuegu.

**noqua**

Jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noqua

www.noqua.eus

# Hondakinen bilketak indarrean segiko du, baina adi ohar hauei

Aste hasieran 11 urte bete zituen atez ateko bilketak indarrean segiko du konfinamenduak irauten duen egunetan ere. Baina Udalak plazaratu berri duen bandoaren bidez, honako oharrok kontuan hartzea eskatu du.

Hondakinak atez ate biltzen segiko du Usurbilgo Udalak alarma egoera honek iraun artean. Aldiz, momentuz, bestelako zenbait bilketa-zerbitzu etenda geratuko direla berri eman du Udalak: Atalluko Garbigunea, San Marko Mankomunitatearen furgoneta ibiltaria, asteroko boluminosoen zein altzarien bilketa pertsonalizatua eta komertzioetako etzeko olioaren bilketa. Zerbitzu hau berriz abian jarri artean, “etxean gaika egoki jasotzea eskatzen da”.

## Kutsatutakoei oharra

Covid19 birusagatik kutsatuta edota berrogeialdian isolatuta diren herritarren kasuan, “garantzitsua da Udalari egoeraren berri ematea”. 669 87 40 22 telefono zenbakira deitu eta hondakinak kudeatzeko moduz argibideak jasoko dira.

## Elikadura bermatzeko diru-laguntza bereziak eta neurri ekonomiko gehiago

Behar larrian direnei, kolektibo zaugarrienak laguntzeko neurri ekonomiko bereziak onartu ditu Usurbilgo Udalaren Prebentzio Mahaia. Jada eska daitezkeen elikadura bermatze-



Momentuz, zerbitzuok etenda geratuko dira: Atalluko Garbigunea, San Marko Mankomunitatearen furgoneta ibiltaria, asteroko boluminosoen zein altzarien bilketa pertsonalizatua eta komertzioetako etzeko olioaren bilketa.

## ZERGAK

**Zergak ordaintzeko epea luzatuko dela iragarri du Usurbilgo Udalak: ibilgailuena, IBla eta ekonomia jardueren zerga**

ko diru-laguntza deialdia edota udal tasa eta zergei lotutako neurri gehiago.

Udalaren Prebentzio Mahaia onarturiko neurri ekonomiko hauek guztiek helburu argia dute; oinarritzko behar sozialak asetzen laguntzea. Tartean, elikadurarena. Konfinamenduaren ondorioz, elikadura bermatu ezinik diren herritarrei zuzenduriko diru-laguntza lerroa iragarri du Udalak, alarma egoerak iraun artean, elikagai bankuetatik hornitu edo jangela beka duten haurrentzat. Alarma egoera luzatuko balitz, berriz eskuratzeko aukera izango da. Fami-

liako kide kopuruaren arabera, 15 egunerako laguntza banatuko da. Xehetasun guztiak 6. orrialdeko artikuluan aurkituko dituzue.

## Zergen eta tasen ordaintetan, malgutasuna

Neurri ekonomiko gehiago ere onartu ditu Udalak. Batetik, ematen ez den zerbitzurik ez kobratzea herritarrei; Haur Eskolaren kuota, Kiroldegari lotutako abonamendu eta ikastaroak; zergen eta tasen ordaintza malgutasunez egitea. Horrekin batera, zergak ordaintzeko epea luzatuko dela ere iragarri du: ibilgailuena, IBla eta ekonomia jardueren zerga.

Gainerako tasak eta zergak ordaintzeko malgutasunez jokatuko dutela iragarri dute Udaletik, arazoak izan ditzaketan herritarrekin. Udalak bestalde, azpikontratutako zerbitzuen kontratuak ez ditu etengo oraingo.

## 130 kideko babes sarea

Udalak bolondresekin batera abian jarritako Herritarren Babes Sarea 130 herritar batu dira. Gogoan izan; 688 634 512 telefono zenbakia duzu laguntza eskatzeko bidea.

## Sarearen funtzioak:

- Haurren zaintza bermatzeko.
- 65 urtetik gorako herritarrei oinarritzko elikagaiak edo sendagaiak erosten laguntzeko. Bolondresen izen emateko aukera

dute Udalaren usurbil.eus atarian aurkituko duzuen estekan.

Zerbitzuaren hartzailearentzako hartuemanak nolakoak izan behar duen definitzen duen protokoloa osatu dute.

## Presoei idazteko deia

Euskal presoek eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea zuen iragarria Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, baina hilabete amaierara arteko ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira, koronabirusa dela eta. “Itxura guztien arabera presoak bisitarik gabe geratuko dira”. Testuinguru honetan, presoek “gogoan ditugula adierazi eta gure animoak bidaltzera” animatzen dute aipatu bilguneetik. Modu berezian, preso herrikideei.

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga Madrilgo Aranjuezeko espetxean dituzte preso. Olatzen amen modulan funtzionario bat koronabirusaz kutsatu zen hilabete hasieran eta ondorioz, “modulu guztia isolatua dago, eta, hortaz, ez du inoren bisitarik jasotzen”.

Egoera orokorrarekin batera, familiak berak bizi duena erantsi behar. Xuak 3 urte bete ostean, gurasoengandik bereizi zuten urtarilaren 19an.

## Hemen helbideak:

■ Olatz Lasagabaster Anza Centro Penitenciario Madrid VI-Modulo F2 Carretera N-400, km 28 28.300 Aranjuez (Madrid)

■ Patxi Uranga Salbide Centro Penitenciario Madrid VI-Modulo 1 Carretera N-400, km 28 28.300 Aranjuez (Madrid)

## Kinkearen zozketa bertan behera geratu da

Etterat-en Kinkea produktu promozio berriaren martxoaren 21eko zozketa bertan behera geratu da. Udaberriko promozioaren zozketa martxoaren 30ean egitekoa dute. Informazio gehiago: kinkea.eus



# Herri bizitza etenda

**K**onfinamenduaren irudi argia, kalekoa. Hutsik eta isilik da herria. Tabernak, saltokiak itxita. Ekitaldirik ez plaza eta kaleetan. Parkeetan haur eta gurasoen joan-etorriak ez. Bizitza etxe barruetan da, balkoi eta leihoen bestalde. Lau hormen baitan. Nahi ez dugun bizitarik gabeko herriaren adierazle argia ondoko argazkia.

## Bizitza, balkoietan

Herri bizitza plazetatik etxetako balkoi eta leihoetara lekuz aldatu da egunotan. Itxialdiak ezohiko irudi eta soinuak ekarri ditu; harremandu, komunikatu eta mobilizatzeko eredu berri bat. Balkoian abesten entzun daiteke jendea, kirola egiten, egonean egoten, lanean. Eta protestan: azken egunotan, jendeak eskura zituen soinua eragiteko lapiko eta gailuekin protestan ikusi ditugu, Espainiako Erregea kanporatzeko eskatzen, erailketa matxistak salatzen...

## Osasun langileen eskertza

Eta eskertzen. Gu guztion



Nahi ez dugun bizitarik gabeko herriaren adierazle argia da ondoko argazkia.

## DONOSTIALDEKO OSAKIDETZA

**“Eskerrak eman nahi dizkiegu herritar guztiei erakutsi diguzuen maitasunagatik”**

osasuna zaintzen ari diren langileak omentzen ari da egunero herria. Hitzordua; iluntzero 20:00etan, balkoi eta

leihoetan. Usurbilgo anbulatorioko langileak barnebiltzen dituen Donostialdeko Osakidetza langileek eskerrak eman nahi dizkiete “herritar guztiei erakutsi diguzuen maitasunagatik. Zuen esker onak eta -etxean geratuz eta gure jarraibideak betez- osasunarekiko erakutsi duzuen konpromisoak indarberritu eta lagundu egiten gaitu. Mila esker bihotzez”.

# Udala, gutxieneko zerbitzuetan

Telefono bidezko hartuemanak eguneroko harrera fisikoa ordezkatu du, batzordeak eta udalbatzarrak bertan behera geratu dira, prozesu administratiboak etenda... Gutxieneko zerbitzuetan da Usurbilgo Udala, konfinamenduaren agindua bete eta Covid19 birusarekin kutsatzeko arriskua murrizteko.

Harrera fisikoa ezabatu dute udaletxean. Telefono bidez egingo dute goizez, 9:00-14:00 artean, “Gipuzkoako Foru Aldundiak ordutegiak murrizteko hartutako erabakiari jarraituz”. Bestetik, udal-langileek etxetik lan egitea erabaki dute. Honenbestez, “fisikoki udale-

txean egotea beharrezkoa den langileak baino ez dira izango bertan”.

Udal barruko jarduna ere etetea erabaki dute; batzordeak edota udalbatzarrak bertan behera gelditu dira, “hartu beharreko erabakirik ez dagoen bitartean”. Prozesu administratiboak ere ez aurrera ez atzera, egoera horretan dira; “Pause botoiari emanda bezala, irekita dauden prozedurak ez dira iraungiko: alarma egoera bukatzen denean jarriko dira berriz ere martxan”. Udalaren kasuan bi lan eskaintza zeuden martxan: “liburuzain laguntzailearena eta udal-brigadako langileen lan-poltsarena”.

Udal-brigada bitan banatuko dute, “egun alternoetan lan egiteko”. Eguneroko eginbeharreri eutsiko diete, eta gainerako lanei, lehentasunen arabera helduko diete. Auzo-konpostari tartean. “Udal-brigadak hartuko du egituratzailearen bila joateko eta konposta husteko ardura. Datozen egunetan, auzo-konposta egin beharrean organikoa zintzilikarioan utzi nahiago dutenek, aukera hori baliatu dezakete”.

Udaltzaingoak ohiko jardunean segiko du. Gizarte Zerbitzuetan “kasu larririk” ezean, iragan astean bezala, kontsultak telefono bidez egingo dituzte.

## Herritarren joan-etorriak kontrolpean

Ertzaintza herritarren mugimenduak kontrolatzen hasia da. Herritar batek helarazitako ondoko irudian, martxoaren 18an, igarotako asteburu luzearen atarian San Inazio biribilgunearen bueltan jarri zuen kontrola. Ertzaintzatik iragarri duteenez, “garraio partikularra eta kolektiboa kontrolatuko ditu, baimendu gabeko joan-etorriak eragozteko”. Konfinamendu egoera honetan, “pertsonek, besteak beste, lan-jarduerak edo premia bizikoak egiteko bakarrik zirkulatu dezakete bide publikoetatik”, Ertzaintzak ohartarazi duenez. Tartean, lanera joan, janaria edo botikak erosi, medikuarenera joan edota adineko edo ezin- duak zaintzeko.

## Lagun bat edo bi

Gainera, “osasun publikoarekin, segurtasunarekin, trafikoaren arintasunarekin edo adierazitako arrazoiengatik ibilgailu jakinen zirkulazioa mugatzearekin zerikusia duten arrazoiak direla-eta”, errepideak edo bide zatietako ibilgailuen joan-etorria eten ahalko dute. Adierazitako arrazoiengatik bidera atera behar dutenei, “arrazoiak argitasun osoz eta egiaztatzeko moduan justifikatzeko azalpena eskatu ahal izango die gidariei”.

Ahal den heinean gidariak bakarrik joatea aholkatzen da, bigarren pertsona batekin joanez gero, bigarrenak atzeko eserlekuan eskuin aldean eseri beharko du.



Ertzaintzaren kontrola. Aurreko astean, San Inazio errotondan.



# DYAk ere laguntza sarea antolatu du

**E**lkartasun keinuak asko ugaltu dira egunotan. Berrogeialdiari aurre egiteko, DYAk laguntza sare propioa antolatu du. “Gu momentuz ez gaude Usurbilgo sarearekin harremanetan, baina gure errekurtsoak herriaren eskura jarriak daude, edozertarako”, DYAtik aditzera eman digutenez.

**NOAUA! Laguntza premian dagoenak zer egin behar du? Nola baliatu dezake zuen eskaintza?**

**DYA:** DYAk 24 orduko zerbitzua dauka martxan. Horrela izanik, edozein unetan deitu daiteke 943 46 46 22 zenbakira eta norberak duen beharraren berri eman. Hortik aurrera, DYako boluntario sarea arduratuko da premia horri erantzuna emateaz, beharrezkoak diren neurriak hartuta beti ere.

**Usurbilgo kasuan, laguntza sarea antolatuta dago jada. Usurbilgo herri sarearekin koordinatuta al zaudete?**

Sare hori, oker ez bagaude, Udalaren bidez ari da antolatzen. Gu momentuz ez gaude sare horrekin harremanetan, beharrik sortu ez delako momentuz, baina gure errekurtsoak herriaren eskura jarriak daude, edozertarako.

**Gelditu eta lagunduko dizugu**



“Erosketak egin eta etxera eramateko, botikak helarazteko, egunkaria eramateko, berriketaldi bat izateko telefonoz bakardadean daudenekin, informazioa emateko, zalantzak argitzeko... Edozertarako”, baliatu daiteke DYaren sarea.

**DYA**

**“Denok lagundu nahi dugu herri solidarioa garelako baina kontu handiz ibili behar dugu, lagundu ordez egoera are eta gehiago okertu ez dezagun”**

**izeneko egitasmoa jarri duzue martxan. Zertan datza?**

DYaren proiektua, bere sorreratik, Gelditu eta lagundu lelo-

pean mugitu da. Orain lelo hori apur bat aldatu egin dugu eta Gelditu eta lagunduko dizugu deitu diogu.

Orain arte bezala, edozertarako gaude; erosketak egin eta etxera eramateko, botikak helarazteko, egunkaria eramateko, berriketaldi bat izateko telefonoz bakardadean daudenekin, informazioa emateko, zalantzak argitzeko... Edozertarako!

**Eta, koronabirusa amaitzen denean, zer? Helduenentzako bereziki, arriskutsua izango da**

**kalera irtetea, ezta?**

Hala espero dugu, ahalik eta azkarren amesgaizto hau amaitzea. Eta une hori iristen denean, orain bezalaxe, gure agintarien esanei kasu egin beharko diegu. Eurek esan beharko dute noiz eta zein baldintzetan atera gintezkeen kalera.

Egoera honi aurre egingo badiogu, arduraz jokatu behar dugu geure buruarekin eta besteekin. Denok lagundu nahi dugu herri solidarioa garelako baina kontu handiz ibili behar dugu lagundu ordez egoera are eta gehiago okertu ez dezagun.

## “Gelditu etxean eta gu arduratuko gara zuri laguntzeaz”

Egunotan bizi dugun alarmen egoerari aurre egiteko, DYAk laguntza sare propioa antolatu du berrogeialdi honetarako, arriskuan egon daitezkeen eta familia-laguntzarik ez duten herritarrentzat. Hauek etxean gera daitezkeen ekintzarik burutu ez dezaten.

**46 urteko ibilbidea**

DYA Gipuzkoa taldeak 46 urte daramatza Gelditu eta lagundu lema sustatzen. Orain, ordea, koronabirusak sortu duen osasun larrialdiaurrean, leloa aldatu eta etxean geratzeko eskatzen digute, berriak arduratuko baitira guri laguntzeaz; “#Gelditu etxean eta gu arduratuko gara zuri

laguntzeaz”.

**943 46 46 22**

Laguntzarik ez duten pertsonen laguntzeko prest da DYA, beharrezkoak dituen errekurtso eta pertsona espezializatuak eskainiz. Botikak, elikagaiak edo behar duten hori erosteko prest dira, eta baita arriskutsua izan daitezkeen

bestelako gestioak egiteko ere. Aurrez aipaturiko laguntzen beharrik izan ezker, 943 46 46 22 telefonora deitu eguneko edozein ordutan.

DYA beti laguntzeko prest egongo da, baina, osasun arloko agintarien jarraibideei kasu egin behar zaiela adierazten dute, denon artean egoera honi aurre egiteko.

## Alkartasuna Kooperatiba: “Denda irekita izango dugu, aurkakoa agintzen ez badigute behintzat”

Egun gogorak izaten ari dira hauek. Baita Alkartasuna Kooperatiban ere. “Hala ere, denon ahaleginarekin egunerokoa bere onera etortzen ari da”, ohar bidez aditzera eman dutenez.

Konfinamendu egunak izanik ere, denda irekita mantentzeko asmoa dute. “Aurkakoa agintzen ez badigute behintzat”. Azken egunetako salmentetan agortutako produktu gehienak “biltegiratu ditugu berriro, gure hornitzaileekin elkarlanean”.

### Prebentzio neurriak ezarri dituzte

Bezeroei eskerrak eman nahi dizkiete: “egunotan gurekin izan duzuen adeitasunagatik eta kutsadura saihesteko neu-



Azken egunetako salmentetan agortutako produktu gehienak “biltegiratu ditugu berriro, gure hornitzaileekin elkarlanean”.

### ALKARTASUNA

**“Denda kanpoan zain egotea ez da atsegina baina beharrezkoa dela adierazi digute”**

riak barneratzeko garaian, izan duzuen prestutasunagatik. Denda kanpoan zain egotea ez da atsegina, badakigu, baina beharrezkoa dela adierazi digute”.

Hurbilago Usurbilgo Merka-

tari eta Ostalarien Elkarteari eta Usurbilgo Udalari “nahiz bertako langileei ere” eskerrak helarazi nahi dizkiete. “Bizi dugun egoera nahasi honetatik indarrak berrituta aterako gara denok”.

### Zalantzak argitzeko, telefonoz deitu

Denda zabalik dute Alkartasuna Kooperatiban. Hala ere, “edozein zalantza baduzue, dei iezaguzue 943361114 telefono zenbakira”.

### Ordutegia

Azken orduko aldaketarik ez bada, dendaren ordutegia bere horretan mantenduko da:

■ Goizez: 09:00-13:00.

■ Arratsaldez: 16:00-19:30.

■ Larunbatetan soilik goizez zabalduko dute.

## “Baserriko Plaza” izeneko sarea osatzen hasi dira

COVID19 birusak eragindako krisiari aurre egiteko, azken egun hauetan landu eta abiarazi duten egitasmoa da “Baserriko Plaza”. Laguntzaileen sarea osatzeko deia egun dute.

COVID19-ak larrialdi egoera eragin badu ere, krisi guztien antzera, une honetako beharrei erantzuteko proiektu eta ekimen anitz martxan jartzen ari dira. Lerrootan dugu adibideetako bat.

Indarrean den konfinamendu egoerak, tokiko produktuak salerostea nabarmen zaildu du. Krisialdi honi erantzuteko hainbat eragile eta baserriar bildu eta baserrikoplaza.eus ataria sortu dute; “egoera honek tokiko baserriar eta ekoizleek elikagaiak saltzeko



Ekoizleak eta erosleak bildu nahi ditu proiektu berriak.

### BASERRITIK PLAZARA

**“Elikagaiak eskuratzeko hainbat aukera izango dira: baserrietan, azoketan, dendetan, etxean edo suertatzen den lekuan”**

eta herritarrok horiek eskuratzeko ditugun zailtasunei aurre egiteko”.

Ez baita ahaztu behar, baserriar txikien ekoizpenarentzako irtenbide bakarra salmenta zuzena izan ohi dela: egunotan debekatu dituzten

azokak eta itxi dituzten tabernak eta jatetxeak.

Baserriar txikiei laguntzea du xede “Baserriko Plaza” egitasmoak. Ekoizleak eta erosleak bildu nahi ditu proiektuak.

### Baserriko plazara

Era guztietako laguntzaileak behar dituzte proiektu honetan. Produktuak ekoizten dituzten baserriak edota bezeroen arretaz, logistikaz edota web orrialdearen mantenuaz arduratzeko prest dauden laguntzaileak. “Balia dezagun denok egoera hau indartzeko”. Baserriko Plazakoekin hartuemanetan jartzeko bideok dituzue eskura:

■ 688 867 020

■ baserrikoplaza@gmail.com

■ baserrikoplaza.eus



# Euskara, etorkizuneko belaunaldien helduleku

**B**uruntzaldeko udaletako euskara batzordeek, hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urrietakoek euskara sustatzen dihardute aspaldidanik eremu anitzetan; besteak beste, etxe barruan. Familia barruko komunikaziorako nahiz belaunaldi arteko transmisiorako bidea euskara izateko ahalegi-nean ari dira lanean.

Herritarrak ere batu dira zerain honetara. Etxeko hizkuntza erabakigarria baita sarritan, gerora, norberaren bizitzan ahotan hartzen den hizkuntza hautatzerakoan ere. Asko dira, arbasoengandik jasotako ama-hizkuntza naturaltasunez txikitatik jaso eta erabileraren sokari segida ematen diotenak. Eta beste hainbat, euskaldundu ahala, gerora euskararen transmisio lanetan hasten direnak. Euskaldunduriko edo euskalduntze bidean diren guraso migraenteak, esaterako.

Tartean, aparteko ahalegina egiten ari dira lerrootan bildu ditugun bi emakume; Fatima Fatimetou eta Vanessa Estupiñan. Biak ala biak munduko herrialde desberdinetatik gure artera haien bizi proiektua garatzera etorri ziren duela hamarkada bat. Fatima Sahararik, Vanessa Kolonbiatik. Biak ari dira euskara ikasten, haien



**Kolonbiarra da Vanessa. Duela 10 urte heldu zen Lasarte-Oriara anaiarekin. Egun, lehen hitzak euskaraz ikasten ari den haurra du. Euskara jasotzen hasia da eskolan eta etxean.**

## VANESSA ESTUPIÑAN

**“Gustuko dut euskara ikastea eta hemen bizitzea, eta oinarritzkoa da lantokirako, familiarako”**

sorterrriko hizkuntza eta kultura alboratu gabe, euskararen transmisioa etxe barruan bermatzeko. Euskal Herrian jaiotako eta hezten ari diren seme-alaben eguneroko hizkuntza euskara izan dadin lanean.

**Vanessa Estupiñan: “Haurri etxeko lanekin lagundu nahi diogu”**

Kolonbiarra da Vanessa. Duela 10 urte heldu zen Lasarte-Oriara anaiarekin. Egun, lehen hitzak euskaraz ikasten ari den ia 3 urteko haurra du. Euskara jasotzen hasia da eskolan eta etxean. “Bat, bi erdaraz esan beharrean euskaraz adierazten du”. Bikote lagunak eta berak “dakigun oinarritzkoena irakasten diogu eta ulertzen du”.

Argi zuen Vanessak, hemen bizita haurrak euskaraz ikasiko zuela “eta nik ere bai”. Eskolan nahi zutenek euskara ikasten hasi edo indartzeko informazioa biltzen zuen eskuorri modukoa helarazi zieten gurasoei. “Lan ordutegia egokitzeko aukera izan eta euskaltegira joan ahal nuenez, matrikulatzea erabaki nuen”, azaldu digu Vanessak. Batez ere etxean duen haurragatik ari da ikasten. Etorkizunari begirada, haurra helduxeagoa izango den une horri begira.

“Eskolan dena euskaraz irakatsiko diote eta guk etxeko lanekin lagundu nahi diogu”. Ez du bere sorterri inguruetako beste hainbat herrikidderen egoera bera bizi nahi. Alegia, ez du etxeko lanetarako laguntza eskatzera behartua sentitu nahi. “Euskal Herrira bizitzera etorritako gurasoen haur dezente ezagutzen dut, etxeko lanetarako laguntza eskatzen dutenak”, azaldu digu Vanessak. Berak izan nahi du transmisio lan hori euskaraz egingo diona. “Nik nahi dudana da guk lagundu ahal izatea, inoren beharrik izan gabe. Aurrerago, laguntza beharko du eta. Bi gurasoak kolonbiarrak gara eta euskaraz mintzatzeko gai ez bagara, pentsa haurrari nork lagunduko dion etxeko lanetan”.

## “Lantokian soltura handiagoa nahi nuke”

Ez da euskararekin duen lehen hartueman. Heldu zenetik DBH4n matrikulatu, eta lehen hitzak ikasten hasi zen Vanessa. Bere garaian urtebetez aritu zen euskaltegian. “Aditz batzuk oso zailak egiten zitzaizkidan”. Administrazio eta finantza ikasketak egin zituen. Lanpostu bat aurkitzeko ordea, euskara maila altu edo ertaina menderatzea eskatzen dute. “Euskara ulertzen nuen, baina ez nintzen erantzuteko

gai. Beraz ezinezkoa zitzaidan, ikasi nuen horri lotutako lanpostu bat aurkitzea”.

Euskaltegira itzuli da, “euskaraz erantzutekoan segurtasuna izateko. Hanka sartu arren, euskaraz hitz egiten saiatu nahi nuke”. Etxean eta baita jendaurrean lan egiten duen supermerkatuan ere. “Jende gehiena euskaraz agurtzen dut. Gero euskaraz hitz egiten segitzen dute, baina erdaraz erantzuten diet.

Prezioak adibidez, euskaraz adieraztera ez naizelako auzartzen, hanka sartu dezakedalako”. Lantokian “soltura handiagoa izan nahi nuke, etxera heldu eta haurrari euskaraz gauzak egoki adieraztea”.

**“Gustuko dut hemen bizitzea”**

Bere antzeko egoeran zalan-tzan direnentzako mezua; “saiatzera animatuko nituzke. Euskaltegira joan daitezela, are gehiago eskolak berak ho-

rrerarako aukera ematen badizu. Lanean nahiz etxean euskara erabiltzeko ikasiko duzu”. Oinarritzotzat jotzen du, “benetan hemen bizitzea erabaki eta seme-alabak hemen hazi nahi dituenarentzat”. Eta noski, guraso gisa seme-alabei ere hizkuntza bera transmititzeko. “Gustuko dut euskara ikastea eta hemen bizitzea, eta oinarritzkoa da lantokirako, familiarako”, Vanessa Estupiñanen esanetan.



## “Semeak sahararrak izan arren, oso euskaldunak dira”

Fatimak 14 urte daramatza Usurbilen bizitzen. Ama izan zenean argi izan zuen: ikastolan matrikulatu zituen semeak. “Hemen bizitza erabaki nuen, euskara ikastea nahi nuen”. Euskalduntze bide horretan, ez zuen bitan pentsatu; semeak ikastolan matrikulatu zituen. “Euskaldun euskaldunak dira. Etxean haien artean euskaraz hitz egiten dute. Arabieraz baino hobeto moldatzen dira. Sahararrak izan arren, oso euskaldunak sentitzen dira”, dio Fatimak.



Semeak Usurbilgo ikastolan matrikulatu zituen. “Euskaldun euskaldunak dira. Etxean haien artean euskaraz hitz egiten dute. Arabieraz baino hobeto moldatzen dira”.

### “Semeek laguntzen naute euskararekin”

Hizkuntza transmisioari dagokionez, paper garrantzitsu eta berezia dute Fatimak eta senideek. Alde bietakoa den elkar ikaskuntza eta igorpena; semeek euskara ikasten laguntzen diote Fatimari. Fatimak sorterriko hizkuntza transmititzen die semei arabiera gal ez dezaten; transmisio bikoitza da halere, ikasten doan euskara ere ahotan hartu nahi baitu semeekin. “Ama hizkuntza ere ezagutu behar dute, inork

**FATIMA FATIMETOU**  
**“Semei arabiera irakasten ez banien, ez zuten ikasiko”. Orain, funtzio trukaketa egin dute. “Haurrek arabieraz hitz egitea lortu nuen. Orain haiek laguntzen naute euskararekin”**

ez baitu bere jatorria ahaztu nahi eta beste hizkuntza bat ikasteak ez dio tokia kentzen lehendik ikasitakoari”. Lerrootako elkarrizketatuak bazekien Usurbilen ikasita, euskara, gaz-

telera eta ingelera ikasiko zute la semeek, “arabiera irakasten ez banien, ez zuten ikasiko”. Orain, funtzio trukaketa egin dute. “Ni irakasten aritu naiz, haurrek arabieraz hitz egitea lortu nuen. Orain haiek laguntzen naute euskararekin”.

### “Ama, ondo egiten ari zara”

Bere garaian, semeak txikiak zirela “nahi nuen haiekin euskara ikasi eta denok batera aurrera egitea baina lan kontuengatik ez nuen lortu. Orain ordea bai”. Euskara etxetik kanpo jaso dute semeek,

baina bide hori indartzeko Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegia hasi da ikasten Fatima. Pozik eta motibatuta dago. “Asko laguntzen naute. Lehen ikasturtean nago. Hemen bizitzen denbora asko daramanez eta interesa dudanez, hitz egitea kostatzen zait baina ulertu, asko ulertzen dut”, adierazi digu. Ikasitakoa ahotan hartzen ahalegintzen dela nabarmentzen du, gune publikoetan eta etxean.

Etxeko lanak partekatzen dituzte ama semeek. “Ama, ondo egiten ari zara. Pixkanaka aurreratzen zoaz”, adierazten diote semeek Fatimari. Argi du bide luzea duela jorratzeke aurretik, “baina, garrantzitsuena borondatea da, gauza asko lor ditzakezu borondatea izanez gero”.

### “Denborarekin ikasiko dut, lortuko dut”

Eta erronka beteko duela argi du. “Inoiz ez da berandu. Saiazen bazara, nahi duzuna lortu ahal duzu. Semeek euskara eta arabiera ondo hitz egiten dute. Nik denborarekin euskara ikasiko dut. Lortuko dut”.

## “Hobeto euskara ondo ezagutzea, askoz gehiago jakiteko eta gizartean integratzeko”

Euskal Herriko berri bazuen Fatimak lehendik. “Sahararra naizenez, euskal historia aspalditik ezagutzen dut. Hona etorri aurretik”. Gustuko du euskara eta euskal kultura. Kanpamenduetan bizi zirela, oso gogoan du: “euskaldunen komisioak etortzen ziren saharar herria laguntzera”. Horregatik dio, behin hona etorrita, “hobeto euskara ondo ezagu-

tzea, askoz gehiago jakiteko eta gizartean integratzeko”.

Herrigintzan nahiz aisialdi eremuan emakumeen palatledean parte hartu izan du. “Denek hitz egiten zuten euskaraz. Ez nuen taldeko astuna izan nahi”. Argi dio, “bat gehiago izan nahi dut, noan lekura noala”. Lan mundurako ere behar da euskara, “asko euskaraz soilik hitz egiten

dute eta haien eskubidea da”.

### “Euskaraz hitz egiteak bizitza errazten dizu”

Halakoetan argi du, “pertsonekin zer hizkuntzetan komunikatu jakin behar da, nahiz egoki ez adierazi. Gutxienez interesa erakustea”. Sorterrian egoera latz asko bizitza egokitu zaie eta Fatimak argi du, “bizitza egokitzen zaizkizun

egoerekin nola bizi asmatu behar da”. Argi irizten dio, “bizi zaren herriko hizkuntzan hitz egiteak bizitza errazten dizu”.

Berak euskara ikastea, senideekin ere mintzatzea, eta euskararekin bezala, semeek “arabiera ondo kontserbatzea” nahi luke. Transmisio lan bikoitza beraz. Baina berak dioen moduan, jakintzak ez du lekurik betetzen.



# Alex Tello: “Ostiral honetarako iragarri genituen ekitaldiak aurrerago egingo ditugu”

Ostiral honetan, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzekotan ziren Sutegin. Aitzakia horrekin, Atea Teatro taldeak *Birritan bortxatua* antzezlana eta Ekiza kantariaren kontzertua antolatu zituen egun horretarako. Alerta egoera dela eta, ekintza hauek atzeratzeko beharra ikusi da.

**NOAUA! Martxoaren 27rako ekitaldi bikoitza antolatua zenuen. Dena den, bertan behera geratu da hitzordua.**

**Alex Tello.** Sutegiko ekintzak bertan behera geratu dira, bai. Aurrerago egingo ditugu, baina noiz izango den ez dakigu.

**Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu zenuen bi saioak. Zer suposatzen du zuretzat, Udalarekin batera egun honen ospakizuna antolatzeak?**

Usurbilgo Udalak kultur arloan oso ondo laguntzen du



Alex Tello, Ruben Sainzen *Rio da madre* (estreinatzeke) film luzearen fotograma batean.

## ALEX TELLO

**“Udalak kultur arloan oso ondo laguntzen du. Hala, urtean diruz-lagundutako ekintza bat antolatzea erabaki nuen eta “interesgarriak” diren zuzenekoak programatu”**

(baliabideen erabilera errazten du, luxu bat da). Hala, urtean diruz-lagundutako ekintza bat

antolatzea erabaki nuen eta “interesgarriak” diren zuzenekoak programatu.

**Hortaz, beste data batean egingo dira *Birritan bortxatua* antzezlana eta Ekizaren kontzertua. Bi ekitaldien gaineko aurkezpen labur bat egingo al diguzu?**

*Birritan bortxatua* antzezlanak bizi dugun gizartea salatzen du. Lan deserosoa gerta dai-

teke, gordina, kritikoa bezain beharrezkoa. Lehen lerroan diruz ondo hornituak dauden antzerki konpainiak ez dira ausartzen halako lanak egitera.

**Ondoren Ekiza kantaria zen aritzekoa. Bere musika eskaintza ezagutzen ez duenari, zer esango zenioke?**

Ekiza bakarrik aritzen da agertokian (Willis Drummond taldeko kantaria ere bada). Gaztea da eta eskarmentu handikoa. Talentua du eta bihotza. Umila ikusten zaio, naturala. Horrekin dena esaten dut.

**“Galerak, Oihana Alkortaren poema baten segida” diskoa plazaratu eta zuzeneko bat eskaini zenuen Sutegin. Pozik esperientziarekin? Horrelako beste zerbait egitea aurreikusten duzu?**

Ez dut aurreikusten halako lan gehiago... Omenaldia, erronka, ametsa... bizipen errepikaezina izan zen.

## Sortzea ederra da baina kudeaketa oso nekeza”

**NOAUA! Antzezle, aurkezle, gidoilari... hainbat arlotan aritzen zara. Aurrera begira, zeintzuk dira eskuarteant ditzuzun egitasmoak?**

**Alex Tello.** 2018tik gizarte hezitzaile lanetan nabil Donostian eta egun jarduera artistikoa zaletasunetik bizi dut. Azkenaldian ekimen askotan parte hartu dut, kalitatezkoak guztiak. *Tournées* (Israel Gonzalez 2019) laburmetraian adibidez. Eta estreinatzeke dauden hauetan ere aritu naiz: *Rio da madre* (Ruben Sainz), *Gudaparteak* (Amaia San Sebastian, Leire Egaña eta gehiago), *No way out* (Lucas Milla) eta aurki beste lan batean parte hartuko dut. Eta gutxi egiten diren arren, ez naiz cas-



“Antzezteak gustuko dut baina zuzendaritzan ere ondo moldatzen naiz”.

ting-etara joaten.

**Jarduera guztien artean, zein da gustukoena duzuna?**

Antzezteak. Nahiz zuzendaritzan ondo moldatzen naizen. Sortzea ederra da baina kudeaketa oso nekeza da.

Idaztea gustuko dut eta aktoreen zuzendaritza ere bai. Aurkezle lanak gustura egiten nituen eta ikus-entzunezkoen komedian ez naiz trebatu nahi bezainbeste. Dena den, aldentzen ari naiz bide horretatik.

## “Antzerkiak zentzua

### eman dio nire bizitzari”

“Antzerkiak zentzua eman dio nire bizitzari”, aitortu digu usurbildar aktoreak. “Bestalde, kalitateagatik eta gauzak ahalik eta ondoen egin nahi ditudalako, ekonomikoki asko ematen diot (gehiegi) eta ez naiz damutzen baina ia ia. Horregatik, sorkuntzarako diru-laguntzak bai eskertuko nituzkeela”, adierazi digu Tellok. “Lana, denbora, kezka, gogoeta... Askok eman diot sorkuntzari, baita ekimenean sustapenari, eta horrek gogoia elikatu dit, baina eraberean eta kasik oharkabean gauza askori uko egin diot. Esango nuke antzerkiak gehiago kendu didala eman baino, eta horrela segitzen dut. Ez dakit noizbait askatuko (liberatu) ote naizen...”.



Idoia Torregarai Martija

## Umore onaren elikagaiak

**E**goera berezia, arraroa, ohiz kanpoko ari gara bizitzen koronabirusa dela eta. Etxean behartua egotea ez da erraza izaten ari arrazoi askorengatik, eta horietako bat da elikadurarena.

Etxean egoteak baditu albo kalteak gure dietan eta dagoeneko nabaritzen hasiak gara ondorioak. Bost minutuero izozkailuari bisita egiten diogu eta litxarrerien apala gero eta maizago husten ari gara. Emaitza: konfinamendua bukatzerako 20 kilo gehiago edukiko ditugu askok! Horri aurre egiteko oso ondo dago etxean kirola egitea, baina gai horretaz ez naizenez aditua (ezta aritua ere, izan gaitezen zintzoak), utzidazue gutxienez elikadura gomendio batzuk ematen. Izan ere, zientziak frogatu du jaten dugunak eragin erabakigarria duela ez soilik gure osasunean, gure animoan ere bai. Hona hemen beraz, umore onez jartzen gaituzten elikagaietako batzuk, zuen erosketa zerrendara gehitzeko:

■ **ARRAINA.** Omega-3 eta koipe osasungarriak ditu. Bere azidoetako batzuk ge-



“Konfinamenduari aurre egiteko oso ondo dago etxean kirola egitea, baina gai horretaz ez naizenez aditua (ezta aritua ere, izan gaitezen zintzoak), utzidazue gutxienez elikadura gomendio batzuk ematen”.

### IDOIA TORREGARAI

**“Zientziak frogatu du jaten dugunak eragin erabakigarria duela ez soilik gure osasunean, gure animoan ere bai. Hona hemen beraz, umore onez jartzen gaituzten elikagaietako batzuk, zuen erosketa zerrendara gehitzeko”**

hiago agertzen dira depresiorako joera txikiagoa duten pertsonetan.

■ **OLOA.** Triptofanoan aberatsena den elikagaietako bat

da, gure nerbio sistemak ondo funtzionatzeko beharrezkoa duen elementua.

■ **BANANA.** B6 bitamina du, serotonina eta melatonina bezalako neurotransmisoreak sintetizatzen laguntzen duena. Gainera, bere potasio eduki altuak umorea hobetzen du.

■ **TXOKOLATE BELTZA.** Txokolateak zoriotsu egiten gaitu, ez bakarrik gozagarria delako, baizik eta bere kimikarietako batzuek endorfinak askatzen dituztelako garunean. Hori gutxi ez eta dopaminaren ekintza indartzen du, zoriotasunaren eta plazeraren neuro-

transmisorea dena.

■ **DILISTAK.** Serotonina sintetizatzen lagundu eta antioxidatzaileak sortzen sustatzen dute.

■ **ESPINAKAK.** Kaltzio iturri izateagatik dira ospetsuak, baina serotonina erregulatzeko laguntzen dute ere.

■ **BROKOLIA.** Besteak beste, brokoliak kromo asko du, eta horrek neurotransmisoreak areagotu eta horiek erregulatzeko laguntzen du.

■ **KALABAZA.** Folatoak, zuntza, B6 bitamina eta C bitamina ditu: koktel antidepresibo eraginkorra.

■ **INTXAURRAK.** Fruitu lehor honek Omega 3 asko du, eta eragina du gure neurotransmisoreetan. Oloa intxaur, pakana eta almendrekin nahas daiteke, umore txarraren aurka elikagai osasungarri eta eraginkorragoa lortzeko.

■ **KAFEA.** Ikerketek erakutsi dute egunean kafe katilu bat edo bi hartzen dituztenek gehiago eusten diotela depresioari beste edari batzuk hartzen dituztenek baino. Kafeinak dopamina estimulatzen du.

Orain badakizu komuneko paperaz gain zer erosi behar duzun!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

**Usurbil Autoak**  
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79



Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA



# “Ospitaleratze asko espero dira egunotan”

Iluntzeko 20:00etan, euren-tzat izan ohi dira herritarren txaloak eta animoak. Egunotako soinu banda osasun arloko profesionaleri zuzendua dago. Donostiako Ospitalean lanean ari den erizain usurbildar batekin egon gara. Anonimotasunetik, bere bizipenak azaldu dizkio NOAUA!ri.

Beldurrez bizi ditu egun hauek. “Ez dakigu zeren aurrean gauden”, aitortu digu Usurbilgo erizain honek. Oso eskertuta dago iluntzeroko txaloaldiengatik, baina umiltasun osoz esan digu euren lana baino ez dutela egiten. Birusa ez da buruan duten kezka bakarra. Lan baldintzek loa galarazten diete. “Gero eta material gutxiago dago eta hortik dator protokoloaren egokitzapena. Gaur egun, gure unitateak badu materiala”. Baina gero eta gaixo gehiago ospitaleratzen dituzte. “Materiala



“Jende asko dago etxean, inor ez zaiona joan test bat egitera”. Erizain usurbildar baten esanetan, “datuak desbirtuatuak daude. Honek beste dimentsio bat du”.

## ERIZAINA OSAKIDETZAN

**“Prekarietatea askotan landu den gai bat da. Interinitate eta errotazio asko dago”**

duzun artean seguru sentitzen zara”. Protokoloa ondo betetzea ere inportantea da. Bere denbora ematen du egoki janzteak. “Hori materiala dugun artean. Materiala bukatzen den egu-

nean, gero eta ageriago egongo gara. Baina gure arreta berbera izango da. Guk berdin zaindu behar dugu gaixoa, baina ez gara berdin egongo babesturik”. Eta horrek kutsatze-kate amaigabe bat ekar dezake. “Ospitaletik etorriko gara etxera, eta etxean beste pertsona batzuekin egongo gara, eta joan beharko dugu erosketak egitera... Horregatik da hain garrantzitsua gu ez kutsatzea”.

## “Ez dakigu zeren aurrean gauden”

2009. urtean, A gripea zabaldu zenean, antzeko egoera bizi izan zuten osasun arloko profesionalak. “Jendea etxeetan geratu ez zenez eta ohiko bizitzari eragin ez zioenez, jada ahaztuta dugu”, erizainak azaldu digunez.

## “Gu gauden unitatean, jendea oso gaizki dago”

Gaurko egoera bestelakoa da. Birusa ezezaguna baita oraindik. “Gu gauden unitatean, jendea oso gaizki dago. Isolamendu protokoloetan sartzen gara eta horrek guri errespetu asko eta beldur handia ematen digu. Ez baitakigu zeren aurrean gauden”.

## Taldeakako lana

Kezka handiarekin bizi dute eguneroko jarduna. “Talde multidiziplinar bezala lan egiten ari gara. Zure kideak dira zuri lagunduko dizutenak”.

# “Lanera bueltatu nintzenean, inpresio handia egin zidan isiltasunak”

NOAUA! Etxetik ikusten denarekin alderatuta, zer nolako inpresioa duzu? Ospitaletik nola ikusten dira gauzak? Uste baino larriagoa al da egoera? Erizaina Donostiako Ospitalean: Aurreko ostiralean bueltatu nintzen ospitalera. 10 egun ziren azken aldiz bertan izan nintzenetik. Eta ostiralean lanera bueltatu nintzenean, inpresio handia egin zidan isiltasunak.

Ospitaleko larrialdietara jaitsi eta ez da ezer entzuten. Jendeak ordurako bazekien etxean geratu behar zuela, ospitalera ahal den gutxien joateko deia zabaldu zelako.



Osakidetza erizain bat COVID-19 gaitzak jota hil zen. Bere lankideak kalera atera ziren biharamunean.

## Eta nolako giroa dago zure unitatean?

Hor datoz larritasunak. Da-

torren pertsona hori ez dago ondo. Hori berez oso estresantea bada, orain, beste gauza bat

hartu behar dugu kontuan. Bestea bezain estresantea dena. Gure burua ondo babestu behar dugu, gu ez kutsatzeko.

## Gauzak ezberdin ikusiko dira ospitaletik, ezta?

Etxean zaudenean, kaleak hutsik ikusten dituzenean, lasaitasun “tentso” horren lekuko zara. Gutxi asko, badakizu zer suposatzen duen jende guztia etxean egoteak. Baina hara iristean, tentsio uneak areagotu egiten dira. Badakizulako zer datoren. Gaixo bat etortzen den bakoitzeko, ohe bat gutxiago dagoela besteentzat.

# “Harrotasun handiz ari gara, gure lana da”

**G**ure solaskidea txundituta dago bizilagunen elkartasun olatuarekin. Errepikapenaren errepikapenez, iluntzeroko ohitura bihurtu den txaloaldiarekin. “Egia esan, balkoira ateratzen naizen bakoitzean hunkitu egiten naiz. Akaso denak etxean dauden artean guk atera behar dugulako kalera, gure lana egitera”. Ez nolanhikoa, birusa duten pertsonak zaintzea dagokie-eta erizainei. “Hori da gure lana, tokatu zaiguna. Harrotasun handiz ari gara, gure lana da”.

Eguneroko elkartasun keinu hauekin oso eskertuta dago usurbildar erizain hau: “estimaten da pila bat jendeak hain ondo baloratzea. Ez nuke hau egun batzuetako kontua izatea, isolamendua-ren hasierako egunetan gaudelako oraindik. Eta euforiko gaudelako”. Gero animoak berherantz egingo duten beldur



Osasun arloko langileek agerraldia egin zuten martxoaren 10ean Txagorritxuko ospitalean, langileentzat babes neurri gehiago eskatzeko.

## ILUNTZEKO TXALOALDIAK

**“Egia esan, balkoira ateratzen naizen bakoitzean hunkitu egiten naiz”**

da. “Baina guk hor jarraituko dugu. Hau ez da bukatuko itxialdia bukatzen denean. Kasuak hor egongo dira eta guk beti joan beharko dugu ospitalera. Guretzako epe luzeko

borroka izango da”. Ez hori bakarrik. “Kontuan izan gaixo hauek ondorio asko dituztela, gaixotasun honek birikei asko eragiten dielako. Haien erreku-perazioa ez da gaurtik biharkorako zerbait izango. Eta orduan ere, hor jarraituko dugu guk”.

Esker oneko hitzak ditu baina ez ditu beste arlo batzuetako langileak ahaztu nahi. “Gure lana egiten ari gara. Beste sektore askotan jendeak lanean jarraitzen duen bezala”.

## “Buruarekin jokatu dezagun”

Eskuak ondo garbitu. Behin eta berriro zabaldu duten mezu hori gogoan izan behar dugu. Sintomarik badugu, “buruarekin jokatu dezagun”, adierazi digu Usurbilgo erizain honek.

## “Badakit estresantea dela etxean geratzea”

“Senide bat gaixo badago, lehenengo erreakzioa da gaixoa ambulatiora eramatea”. Kontuan izan ordea, akaso eramaten duzun toki horretan kutsatu daitekeela zure senidea. “Badakit estresantea dela etxean geratzea, deika ibili eta inork ez hartzea. Baina esan badigute hala egiteko, jarrai ditzagun ezarritako arauak”. Eskuak garbitu eta etxean geratu. Non da muga ordea? Noiz eman behar da osasun etxera joateko urratsa? “Arnas ezintasuna sortzean, orduan bai etxetik atera behar duzu. Birika horiek benetan sufritzen ari direlako”.

# “Guk ahalegin handia egiten dugu, baina gaixo etorri denak ordaintzen du azkenean”

Osasun arloko langileek ez dute beste munduko ezer eskatzen. Lan baldintza duinak eta material egokiak. “Gu babesteko eskatzen dugu, gu ez kutsatzeko eta guk gure ingurukoak ez kutsatzeko”. Baina horretarako, osasun arloko egitura guztia berrindartu behar dela adierazi digu erizain usurbildarrak. “Askotan minimoan gaude lanean, eta egunak pasa ditzakegu horrela. Baina halako gauza bat helitzen denean, ez duzu nahikoa baliabiderik”. Eta baliabide faltan, azken buruan, nork ordaintzen du? “Gaixorik datarrenak. Guk ahalegin handia



Eskuak ondo garbitzeko ohiturari heldu beharko diogu gerora ere.

egiten dugu, baina gaixo etorri denak ordaintzen du azkenean”. Tokatzen zaionari hau esango lioke: “baloratu dezala

sistema publikoa nola dagoen”.

## “Hemen ere pasa daiteke”

Txagorritxu ospitalean erizain

bat hil zen aurreko astean. Eta hori ondo gogoan dute eguneroko ospitalera doazenek. “Hemen-dik akaso urruti ikusiko da, baina hemen ere pasa daiteke. Prest egon behar dugu, guardia ez da jaitsi behar”. Birusak gainera, “gure artean segiko du gerora ere. Errespetu puntu horretatik, gauzak ondo egiten jarraitu beharko dugu”. Nola? Eskuak ondo garbitzeko hartu dugun ohitura mantenduz, adibidez. Berrogeialdia luzatu ala eten, kutsatzeko arriskuak “hor segiko duelako gerora ere”. Birusa akabatuko duen txerto bat topatzen duten arte behintzat.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukaldia, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahiz izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berritua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## Alokairuan

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoa 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

## MOTORRA

## Salmenta, garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntu kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiribogan asteburuarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko

taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketarako lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar

baduzu ez izan zalantzarik ditzeko. Esperientzia zabal osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetakoko, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketarako, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk



## Zorionak maitia!!

Besarkada eta muxu handi bat familiaren partez!!



## Zorionak txapeldun!! Urtebetetzea

bi aldiz ospatu beharko dugu: bat etxean eta bestea, dena pasatzean, lagun guztiakin! 9 muxu erraldoi!



## Zorionak Garazi!!

12 urte bete dituzu! Muxu handi bat lagun eta familiaren partetik!



gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa

ta lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxe-

ko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

#### BESTELAKOAK

Isabelita Mandarina Japoniarriak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 26** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 27** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

**Larunbata 28** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 29** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 30** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 31** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 01** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Martxoak 26 - Apirilak 5

**Osteguna 02** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 03** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 04** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 05** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda martxoa

## 26 osteguna

■ **Azpiazu Zubeldia anai arrebak** 'Sortuz, bakardadea isolatuz' ekimenean. 19:00etan zuzenean, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

## 27 ostirala

■ **Ibai Arrieta** 'Sortuz, bakardadea isolatuz' ekimenean. 19:00etan zuzenean, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

## 28 larunbata

■ **Ione Iruretagoiena** 'Sortuz, bakardadea isolatuz' ekimenean. 19:00etan zuzenean, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

■ **Ordu aldaketa.** Larunbatetik iganderako gauean. 02:00etan 03:00ak izango dira.

## 'Sormenaren leihoa' zabaldu dute, bakardadea isolatzeko

Bizi dugun itxialdia atseginagoa eta eraikitzaileagoa suertatzeko, "Sortuz, bakardadea isolatuz" herri ekimena abiarazi dute Usurbilgo Artixtek. Bi ildo ditu dinamika berriak, sortzaileen ekoizpenari aterabidea emango dioten zuzeneko emanaldiak eskaintzea eta norberak bere etxean sortutakoa partekatzea.

### Usurbilgo Artixten oharra


"Itxialdian deserosoak eta nekagarriak izan daitezkeen egun motel hauek modu atseginago eta eraikitzaileago batean igarotzeko helburuarekin batetik, eta sortzaileon produkzio emariari aterabide bat emateko bestetik, hauexek dira martxan ipini nahi ditugun dinamikaren ezaugarriak:

1.- Zuzeneko emanaldien antolakuntza (Instagram eta Facebook sare soziale-tako Direct/Zuzenean aukeraren bitartez) kontzertuak, solasaldiak, tailerrak, ikastaroak...

2.- Denetariko bideo eta argazkien sare-tzea. Etxean burutu duzuen edozein sorkuntza elkarbanatzea, alegia: esketx, bertso sorta, txiste, bideoklip...

### Sare sozialetan ikusgai

Hau guztiak ikusteko, jarraitu gure pro-



■ **Ixak Arrutik** piano kontzertua eskaini zuen asteartean. Argazkia: Laida Gonzalez.

filak Facebook (*Usurbilgo artixtak* orria) eta Instagramen (@sortuzbakardadeaisolatuz). Kontu hauen zabalpenaren garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Zuzeneko bat burutu nahi baduzu idatziezaguzu aipaturiko plataformetara edo idatzi email bat usurbilgoartixtak@gmail.com helbidera. Bestetik, ikus-entzunezko euskarririk sortu baduzu, helaraziguzue bide berberak erabiliz".

### Asteburuko deialdiak

■ Martxoak 26 osteguna: Azpiazu Zubeldia anai arrebak, 19:00etan.

■ Martxoak 27 ostirala: Ibai Arrieta, 19:00etan.

■ Martxoak 28 larunbata: Ione Iruretagoiena, 19:00etan.

### Kontuan hartzekoak



### Asteburu honetan, ordutegi aldaketa

Adi, erlojuak eguneratzeko ordua heldu da berriz. Udako ordutegira egokitu beharko ditugu ordulariak. Martxoaren 28an, larunbatetik iganderako goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira. Eguna luzatzen eta gaua pixkanaka laburtzen joango zaigu hurrengo asteetan.

### Herritarren Babes Sarea, egunotan laguntzarik behar dutenentzat osatua

65 urtetik gorako herritarrei, elbarritasunen bat dutenei, haurren zaintzarako arazoak dituztenei eta gaixorik edo isolatuta daudenei laguntzeko osatu dute Herritarren Babes Sarea.

Telefono bat jarri dute laguntza behar duten herritarrek erabiltzeko: 688 634 512.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

# Koronabirusa

## prebenitzeko GOMENDIOAK

1

SARRI GARBITU  
ESKUAK URAREKIN  
ETA XABOIAREKIN

2

EZTUL EDO  
DOMINISTIKU  
EGITEAN AHOA ESTALI  
BESAURREAREKIN EDO  
MUKIZAPI BATEKIN

3

ERABILI ETA BOTATZEKO  
MUKIZAPIAK ERABILI,  
ETA, ONDOREN,  
ZAKARRONTZIRA  
BOTA

4

ARNAS-SINTOMAREN  
BAT IZANEZ GERO ETA  
ARRISKU-EREMU BATERA  
BIDAIATU BADUZU, ETXEAN  
GERATU ETA DEITU  
900 20 30 50

Mukiak kendu  
edo doministiku  
edo eztul egin  
ondoren

Komunera  
joan ondoren

Elikagaiak jan  
edo manipulatu  
aurretik

Animaliekin  
kontaktua  
izan ondoren

Gaixo dagoen  
norbait artatu  
aurretik eta  
ondoren

Esku zikinak  
dituzun  
guztietan



# LAGUNTZA BEHAR DUZU? LAGUNTZEKO PREST ZAUDE?

Covid19 birusaren aurkako prebentzio neurriak direla eta, zenbait usurbildar boluntariok eta udalak elkarlanean Herriarren Babes Sarea osatu dute.

Boluntario sare horrek bere burua eskaini du 65 urtetik gorako herritarrei, elbarritasunen bat dutenei, haurren zaintzarako kontziliazio arazoak dituztenei, edo gaixorik edo isolatuta dauden herritarrei laguntzeko. Hiru behar zehatzi erantzuteko balioko du sareak:

1. haurren zaintza bermatzeko
2. 65 urtetik gorako herritarrei oinarrizko elikagaiak edo
3. ...sendagaiak erosten laguntzeko laguntza

## BOLUNTARIOA BAZARA

Sar zaitez Whatsapp taldera, udalaren sare sozialen bidez,  
@usurbiludala Twitterren / Facebooken / Instagramen

Bete galdetegia, zertarako prest zauden eta zure disponibilitatea jakiteko.

## ESKATZAILEA BAZARA

Deitu **688 634 512** telefonora, eta adierazi zure datuak eta beharrak.



Usurbilgo Udala



HERRITARREN  
BABES SAREA